

...eta

Kitto!

925 zkio.
2015-IV-10



Badator Mendiko Astea!!



ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRENERIA
IRUN • LASARTE • ORDIZIA • TOLOSA

ZURE BIGARREN LEIAR PROGRESIBOAK

OPARI VARILUX®

ERABATEKO BABESA

Konsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan




Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLICLINICA GIPUZKOA

Datorren eguaztenean, apirilaren 15ean, Ignacio Carrillo eta Josu Arrieta Policlinica Gipuzkoako traumatologoek **gerriko minei eta bizkarreko kirurgia-tratamenduei buruzko Osasun Ikasgela eskainiko dute. Eurekin izango da ere Javier Alfaro, Oin Unitatearen podologo, oin moteen, ohiko patologien eta egin daitezkeen tratamenduen inguruan jarduteko. Hitzaldia Portalean izango da eta sarrera librea, tokia bete arte.**

Telefona: 943 00 28 00
www.policlinicagipuzkoa.com



Josu Arrieta, Ignacio Carrillo eta Javier Alfaro doktoarek.

GERRIKO MINA? Zure hezurrek eta hankek ez dezatela zure bizitza hondatu!

"Gerriko mina gizartearen ohiko arazoa da, biztanlegoaren %70-80k jasaten duena bizitzako uneraren batean, baina horietako %5aren bueltan izango da kirurgia-tratamendurik izan beharko duena", lasaitzen dute Carrillo eta Arrieta doktoarek. "Arazo kirurgikoei dagokienez, irizpide kirurgikoetan sartzen diren gerriko min kronikoak dira tratatzen ditugun seinale klinikoak, bizkarrezurreko ezegonkortasun bat edo hiru hilabeteetan gehienez jota disko-hernia baten eraginez hobetu ez den ziatika bat kasurako", diote doktoarek. Bizkarreko minak aurrezaintzeko, doktoarek honako gakoak azpimarratzen dituzte: "Kontuz ibili behar da pisuak mugitu edo jasotzerakoan, obesitatea eta gorputz-jarrera behartuak saihestu behar dira, ariketak egitea komeni da erregularitasunez eta elikadura zaindu beharra dago".

Ondo zapaldu, hobeto bizitzeko

Javier Alfaro Policlinica Gipuzkoako Oin Unitatea zuzentzen duen podologoak, bere aldetik, oin mota ohikoena eta kirolari, heldu zein umeetan gehien sortzen diren patologiak erreparatuko ditu, horiek izan ditzaketen tratamenduekin batera.

Gaur egun, Podologoaren Espainiako Federazioaren arabera, biztanlegoaren %80k jasaten ditu oinarekin lotutako

arazoak. Umeak eta kirolariak dira bereziki kaltetuenak. Bere hitzaldian, Javier Alfaro podologoak oinkada baten azterketa zehatza egitearen garrantzia nabarmenduko du, hortik abiatuta oinaren anatomiaren eta martxaren diagnostiko zehatzena egin ahal izango delako. Hori oinarri hartuta bilatu ahal izango da tratamendu onena, askotan barne-zola zuzentzaile personalizatuen bidez lortzen dena. Horretarako, Podoactivako taldeak oinaren hiru dimentsioetako Scanner eskusiboa garatu du, nazioarte mailan patentatutakoa, eta Eibarko Policlinica Gipuzkoa-ko kontsulta berrian eskuragarri dagoena.

Aldi berean, hitzaldian podologoak lasterketetan parte hartzen dutenendako aholku eta gomendioak eskaintzen egingo du ahalegin berezia, sasoi honetan batzen direlako proba asko eta asko. Javier Alfaroaren esanetan, "lasterkariaren artean 'zintilla iliotibialaren sindromea' dago ohiko patologien artean. 'Lasterkariaren belauna' izenarekin ezagutzen da gehiago, eta korrika hasi eta handik gutxira (10-15 minutu) belaunean izaten den minarekin azaleratzen da. Patologia horretarako tratamendua oso erraza izan daiteke, barne-zola batzuekin osatuta, eurekin oinkada zuzena egitea lortuko dugulako eta, horrekin lotuta, minaren gutxitzea", ziurtatzen du Javier Alfarak.

HITZALDIA:

"Gerriko minak eta bizkarreko kirurgia-tratamenduak"

"Oin motak, ohiko patologiak eta tratamenduak"

OSASUN
IKASGELAK
POLICLINICA GIPUZKOA



DATA Apirilaren 15ean ORDUA 19.30 h
TOPALEKUA Eibarko Portalea sarrera DOAN
Udal Kultur Etxea



POLICLINICA GIPUZKOA
www.policlinicagipuzkoa.com

ASTEAN ESANAK

"Neandertalak fisikoki gu kromagnonak baino prestatuago bazeuden ere glaziazioari aurre egiteko, gu otsoekin aliatu ginen ehizatze eta horri esker heldu gara honaino. Orduan hasi zen txakurrekin dugun harremana. Aurkitu dira orain dela 40.000 urteko hezur aztarnak, non gizakiak eta txakurrak elkarrekin ehortzita dauden, eta animalien hezurretan ez dago hortz-aztarnarik. Horrek erakusten du ez zitutela irentsi, baizik eta familiako parte zirela"

(PAT SHIPMAN,
ANTROPOLOGIA IRAKASLEA)

"Emakumeak menperatuta egon dira mende askotan, baina askapen prozesuari ekin zioten orain dela urte batzuk; ez guk hori sustatzea ulertu eta gure egin dugulako, baizik eta elektrodomestikoak eta pilula moduko zergati teknikoak izan direlako tartean. Orain dena lortu ahal dezakete, gizonak euren buruarekin nazkatuta daudelako, hainbeste mendetan agintzen egon eta gero nekatuta eta guztiarekin nazkatuta daudelako"

(FELIX DE AZUA,
FILOSOFOA)

"Internetek kazetaritza txarraren tokia hartu du, aurkaria deslegitimizatzeko susmoak zabalitzearekin nahikoa delako; horregatik, prentsa izan daiteke oraindik demokraziaren bermea. Hori bai, munduari buruz hitz egin beharrean -hori telebistak egiten baitu-, mundu birtuala da aztertu behar duena: horrek gertuaraziko litzuke gazteak, online jasotzen dutena egia den ikusteko. Baina gaur egungo egunkariak sare esistituko ez balitz bezala jarraitzen dute funtzionatzen"

(UMBERTO ECO,
IDAZLEA ETA INTELEKTUALA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KLIK-KLIKI.- Artaziek ateratzen duten hotsa (ilea ebakitzen, esaterako). "Ebagixok ulia granujioni, klik-klik, bildur barik".

KLIN-KLANI.- Bentana zaratak. "Eta bentania be zabalik laga dau: klin-klan! Klin-klan!".

eskutitzak

KOPAGORIK EZ!

Astelehenean, apirilaren 13an, goizeko 11.00etan Donostiako Etorbidea eta Getaria kalearen artean izkina eginez dagoen Santander Banketxe ondoan, "Duintasuna" Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartek elkarretaratzea egingo du Kopagoaren

aurka. Oreretan, bestalde, udaletxearen ondoan egingo dugu kontzentrazioa eta manifestazioa, egun eta ordu berean eta lelo berarekin. **Kopagorik Ez! Ez diogu gure dirua aurreratuko Eusko Jaurlaritzari!**

XABIER ETXEBERRIA



Euskara Elkarteak

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Sheila Lopez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Periko Iriondo
BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Errepublikia gogoratzeko ekitaldixak

Apirillaren 14an, urtero lez, II. Errepublikia Eibarren beste iñun baiño lehen aldarrikatu zala 84 urte beteko dira eta, hori gogoratzeko, hainbat taldek ekitaldi berezixak antolatu dittue. Ezkerra Berdeak alderdixak izango dira lehenak, **astelehenian**, 19.00etatik aurrera Portaleko areto nagusixan Uruguayko presidente ohiari buruzko "Pepe Mujica, la revolucion tranquila" dokumentalaren proiektziñua egingo dabe eta. Emanaldixa amaittu eta jarraixan, Julio Flor (kazetari eta idazlia) eta Jose Fernandez de la Sota (poeta eta idazlia) lanaren zuzendarixekin berba egitteko aukeria egongo da, dokumentalari buruzko tertulixan.

EH Bilduk, barriz, datorren **martitzenian**, 18.00etan gogoratuko dau Errepublikia eta, horretarako, Sabino Cuadra gonbidatu da-



www.ezkerra.org



be, Arrate Kultur Alkartian berbaldixa emon deixan. Eta Ahaztuak 1936-1977 alkartekuak be martitzenian gogoratuko dabe gurian historikua dan eguna, 20.00etan Untzagan hasiko dan ekitaldixan: bestiak beste dantzariak eta Revuelta eta Etxebeste kantariak parte hartuko dabela aurreratu dabe antolatzailliak. Eta Eibarko Sozialistak, betiko martxan, eguardixan Casa del Pueblo-ko balioian Errepublikaren banderia ipiñitta eta Txaltxa Zelaixan txapliguak botata gogoratuko dabe.



Ahaztuak 1936-1977 alkartekuak urtero antolatzen dabe ekitaldixa gure herrixan.

autuan

SAN ANDRESEN JAIXOTAKUAK

San Andres pasialekuan jaixotakuak bazkarixa egingo dabe apirillaren 18xan, 14.30xetan Azittain jatexian. Juateko asma dakanak 30 euro sartu biharko dittu Kutxabank-eko ES 68 2095 5035 0091 14762621 kontuan. Argibide gehixagorako 61 7202621 telefonora deittu leike (Maite Erostarbe).



BILDUREN ZERRENDIA

Bixar arratsaldian, 19.00etan hasiko da Untzagan EH Bilduk Eibarko zerrendiaren presentaziñua egitteko antolatu daben ekitaldixa. Danera 24 lagun aurkeztuko dittue (21 hautagai eta 3 ordezko). Igone Lamarain alkategaixak EH Bilduren proposamena garatzeko aukeratu daben lantaldia aurkeztuko dau eta, horrekin batera, proposamenaren inguruko argibidiak emongo dittu.



Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net





Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
T: 943 12 02 00 FAX: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- 1) Kardiologia; 2) Zirugia; 3) Dermatologia;
- 4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Anlisi Klinikoak;
- 6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
- 8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
- 11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
- 13) Urologia; 14) Traumatologia;
- 15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
- 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
- 18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
- 20) Lagundutako ugalketa (**BERRIA**)

asteko 492 datua

erabiltzaille eta 1.819 konsulta hartu zittuan udal artxibuak iaz. Konsulta gehixenak, 1.429, zuzenian artxibuan egin zittuen eta bestiak (390) batez be emaillez jaso zittuen; udal-sailleri 193 espediente-maillegu egin zetsazen eta 481 kaja barri aillergau jakozen.



Deparkelen aldeko pintxo-potia

Bixar egun osuan Deparkel Debabarrena Parkinson Alkartaren aldeko pintxo-pote berezixa egingo dabe Untzagan, mundu osuan gaitza gogortzeko eguna dala aprobetxautu. Eguardixan eta arratsaldian, jendia txikiteuan ibiltzen dan ordutegixan, Untzagan txosna modukua zabalduko dabe eta jendiari pintxo ezberdin bana eskinduko detse edaten daben trago baktaxarekin. Aurreko urtiotan egin dakuaren bidetik, bixar be txosnan edarixak salduko ditue: euro bi ordainduta urteko ardaa, freskagarrixak, mostua edo ura edateko aukeria egongo da eta garagardua nahixago da-



benak, barriz, hiru euro pagau biharko dittu. Edarixari laguntzeko pintxuak, barriz, musutruk banatuko dittue eta antolatzailliak azaldu dabenez, bospasei pintxo klase diferentte preparauko dittue, jendiak denetarik probatu deixan. Pin-

txo-pote berezixa 11.30xak al-dian hasiko da eta goizeko biharrak bazkaltzeko ordurako, 14.30-15.00xak al-dian amaitzia espero dabe. Arratsaldian, barriz, 19.00etan hasi eta 21.30-22.00ak aldera amaittuko dabe.



Egogaiñeko etxia Udalak eraitsiko dau

Udalak Egogain kaleko 3. zenbakixa betearatze subsidiario tramitiari jarraituta eraisteko erabagixa hartu dau, aste honetan aditzera emon dabenez. Udalak etxejabieri eraikiña botatzeko permisua emon zetsen iazko uztaillian eta, beraz, eraikiña eraisteko arduria zuzenian eurak hartzia espero eben agintarixak. Baiña denporiak aurrera egin eta epe guztiak agortuta jabiak etxia botatzen hasteko pausorik emoten ez ebela ikusitta, horrelakuetarako prozedurari jarraitu detsa udalak, lehelengo hainbat hertsatze-isun ezarrita eta, halanda be, etxietako jabiak erausketa-biharrerri ekiteko asmorik ez dabenez erakutsi eta etxia jausteko arriskua gero eta haundixagua danez, azkenian udalak eraisketa bere gain hartzia erabagi bihar izan dau. Udalak kalkulau dabenez, etxia botatzeko biharrak 142.650 euroko kostua eukiko dabe eta, biharrerri ekiteko arduria udalak bere gain hartu daben arren, etxejabiak ordaindu biharko dittue.



IITUEkoeri errekonozimendua

Martxuaren 5ian Donostiako Carlos Santamaria Zentruan, aitopen ekitaldixa egin zetsen iazko azaruan Bilbon, Donostian eta Gasteizen garatu zan XIV. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Astean parte hartu eben Eibarko Unibersidadedo bihargin eta ikaslieri. Ekitaldixan Iñaki Goirizelaia errektoreak, Fernando Plazaola Ikerketa errektoreordiak eta Ana Arrieta Gipuzkoako Campuseko errektoreordiak kolaboraziño ziurtagirixa banatu zetsen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Astearen azken ediziñuan stand-etan egon ziran guztieri. Erretratuan, Enerjixa Barriztagarrixekin zerikusixa daken gaixak ezagutzera emoten lagundu eben Eibarko IITUEko bihargiñak eta ikasliak dagoz.



Savina Lafita,
Luz Maceira
eta Zaida
Fernandez. SILBIA

LUZ MACEIRA, ikertzailea:

Badira hilabete batzuk "Emakumeen Aztarnak Eibarko Industrializazio-prozesuan" izenburuko proiektua abiatu zela. Luz Maceira, Zaida Fernandez eta Savina Lafita gure herriko emakumeek iraganean eta, batez ere, industrializazio prozesuan bete zuten tokia eta izan zuten garrantzia aztertzen dabilta, udalak eta Andretxeak lagunduta. Emakume horiei buruzko informazioa batzeko orduan aparteko garrantzia daukate hilean behin Untzagako jubilatuek egiten dituzten bilera irekiek. Parte hartzen animatzen direnek gaiaren inguruan dakitena bilerara joandako beste guztiarekin partekatzen dute eta, horrela, bildutakoaren artean sortzen joaten diren elkarrizketen bitartez emakume horien aztarnak batzen joaten dira, gerora aztarna horien mapa osatzeko asmoz. Ikertzailetako batek, Luz Maceirak azaldu dizkigu proiektuaren nondik norakoak.

"Emakumeen aztarnak jasota, iragana berreraiki nahi dugu"

- Nolatan ekin zenioten "Emakumeen Aztarnak Eibarko Industrializazio-prozesuan" proiektuari?

Eibarren baino lehen, Emakumeen Aztarnak proiektua beste herri batzuetan garatu dugu. Beraz, aurrekari batzuk bazeuden eta, horien berri izatean, Eibarko Udaleko Berritasun Arloko eta Emakumeen Mahaiko ordezkariak gurekin harremanetan ipini ziren, Eibarren ere horrelako proiektua garatzeko interesa zutelada adierazteko. Iazko azaroan proiektua zehazten joateko batzen hasi ginen eta horrela abiatu zen esku artean daukagun ikerketa lana.

- Eta nola elkartu zineten zuek hirurok proiektu zabal hori sortzeko?

Berez, bakoitzak gauza bat ikasi dugu: Zaidak soziologia, Savinak antropologia eta nik, berriz, Hezkuntza Zientziak. Hala ere, hirurok genero eta feminismoari lotutako graduak dauzkagu eta, hain zuzen ere, horrek batu gaitu. Nik 2010ean izan nuen Zaidaren lanaren berri, emakumeen inguruko beste lan batekin nenbilenean. Biek gai beretsuen inguruan jardutean, hitzaldietan eta bestelako ekitaldietan bat egiten hasi ginen eta, interesak berdinak direnez, Oreretan bien arteko elkarlanari ekin genion hango emakumeen aztarnak batzeko proiektuarekin. Eta Savina pixka bat geroago, Eibarko proiektuan beharrean hastearrekin batera batu zaigu.

- Nolako iturrietara jotzen duzue andra horien aztarnak batzeko?

Proiektuaren oinarria parte-hartzea da eta horretarako bide nagusienetakoa hileroko egiten ditugun bilerak dira. Bilerak horietako ardatza, berriz, elkarrizketa da. Batzen diren emakumeek berba egiten joaten dira eta, horrela, gogoratzen eta kontatzen dituzten gauzekin iragana berreraikitzen joaten gara. Bilerei "oroimenerako saioak" esaten diegu guk.

Horrekin batera, saio horietan bildutakoa beste toki batzuetatik jasotzen ditugun edukiekin osatzen joaten gara: besteak beste, jubilatuekin, sindikatuarekin, enpresarekin, gaian adituak direnekin... egindako elkarrizketetan kontatzen dizkigutenekin eta, jakina, artxiboetan aurkitzen dugun informazioarekin.

- Badago antzekotasunik beste herri batzuetan izandako esperientzien eta orain arte Eibarren entzun dituzuenen artean?

Emakumei buruz jardutean, badaude munduko toki guztietan errepikatzen diren ezaugarri unibertsal batzuk: horietako bat, zoritxarrez, gizonekiko berdintasun eza da. Hortik haratago, aztertutako herri guztiak Euskal Herrikoak izaki, beste hainbat gauza herri guztietan ageri dira: proiektuaren inguruan batu diren emakumeak bete-betean sartu dira, erabat inplikatu dira eta herritar-kontzientzia sakona dutela erakutsi dute. Horrekin batera, iraganaz berba egitean bat datoz lan asko egon zela eta, beraz, ongizate maila altua ezagutu zutela esatean. Eurek horrela gogoratzen dute eta guretzat horrek,

iragana eurek nola gogoratzen duten dauka garrantzia. Baina egia da Oreretan industrializazioaz berba egitean batez ere nostalgia sentimendua gailendu zela, atsekabe handia zuten industriari lotutako iragan hori gazteek ezagutu ez zutelako. Eibarren, berriz, ez da horrelako nostalgiarik somatzen, emakumeen jarrerak erreibindikazio nahia erakusten du, orain arte gertatu ez den aitortza lortu nahi dute.

- Ikerketarako informazio guztia batu eta gero, zer egingo duzue?

Epe luzerako proiektua da. Hileroko bilerekin urtea amaitu arte jarraitzeko asmoa daukagu. Bilerak jende guztia erantzat zabalik daude eta dagoeneko hamar bat lagunekin lantaldea nahiko finkatuta dago, egunaren arabera taldea handiagoa edo txikiagoa izaten den arren. Saioak Andretxeak dinamizatzen ditu eta Emakumeen Mahaia ere parte hartzen du. Oraindik ez dugu pentsatu azterketa amaitzean zer egingo dugun, baina beste herrietan egindakoaren bidetik, proiektuak aurrera egin ahala emakumeek eurek ikusiko dute zer den egokiena. Guk dokumentu bat aurkezteko konpromezua, besterik ez daukagu. Oreretan, adibidez, jendeak lagatuko argazki mordoa pilatu ziren eta horiek argitara ematea erabaki zuten, beste batzuk erakusketa antolatuta nahi izan dute... Eibarren dauden baliabideak eta beste faktore batzuk begiratu eta gero, aukerarik egokiena zein den begiratu behar dugu.

Onintza Irigoien Aizpitartek "Asun Casasola" ipuin laburren lehiaketa irabazi du. Txingudi Anti Sexista taldeak antolatutako lehiaketaren helburua indarkeria matxistaren kontrako kontzientziaoa da, Casasolaren lana omentzearekin batera. 22 urteko Eibartar honek bazuen Casasolaren ibilbidearen berri, baina literatur txapelketa batera aurkezten den lehen aldia izan da. Granadan abokatutzan masterra ikasten dabil eta irakur zalea da. Horregatik, liburu bat gomendatzen digu: Irati Jimenezen "Nora ez dakizun hori".

- Nola izan zenuen lehiaketa-berri?

Nire pisukideak komentatu zidan interneten irakurri eta gero. Nahiz eta Granadan bizi, bera ere euskalduna da, Hendaiakoa.

- Eta zer dela eta erabaki zenuen aurkeztea?

Aurretik ere banuen Asun Casasolaren ibilbidearen berri eta lehiaketa oso inizatiba polita iruditu zitzaidan bere lana eta eguneroko borroka omentzeko. Gainera, gaiari buruz idazteko gogoia nuen. Izan ere, txapelketaren berri izan nuenetik, hainbat ideia nuen buruan bueltaka. Eta horrela animatu nintzen parte hartzera. Sariari esker irabaz nezakeen diruak ere izan zuen zerikusirik, etxetik kanpo bizi naiz eta.

- Lehiaketan euskarazko kategoria eta gaztelerezkoa zeuden. Zergatik erabaki zenuen euskaraz idaztea?

Ez zen erabaki bat izan, gaztelerez idaztea pentsatu ere ez nuen egin. Errazago egiten zait euskaraz idaztea, ama hizkuntza dut eta pentsatzen dudana espresatzerako orduan

gaztelerez baino hobeto moldatzen naiz.

- Zure ipuinak kontatzen duena laburbilduko zeniguke?

Indarkeria matxista jasan duten emakume guztiei buruzkoa da. Egoera horrek eragiten duen pixkanakako isolamenduarekin hasten da, protagonista zentzumen barik laga arte. Ondoren, bere ausardia eta indarrari esker, eta inguruko laguntzarekin, protagonistak arazoari aurre egiten dio bide neketsu bati ekin. Azkenean, zentzumenak eta bere buruaren jabetza berreskuratzen ditu.

- Zein mezu helarazi nahi izan duzu istorio horren bitartez?

Batetik, emakumeak bizi dituen urduritasunak, beldurrak, sufrimenduak, erru sentimenduak, bakardadeak, minak eta beste hamaika sentimenduek eragiten duten noxaea islatu nahi nuen. Eta, horrekin batera, ingurunearen laguntzak duen garrantzia azpimarratu nahi izan dut.

- Irabaztea espero zenuen?

Egia esateko ez, literatur lehiaketa batera aurkezten naizen lehenengo aldia delako.



Onintza Irigoien Aizpitarte
(ASUN CASASOLA SARIA)

"Emakumeen indarkeriari buruz idatzi nahi nuen"

MARIXABEL IBARRA GARITAONANDIA

3. URTEURRENA (2012-IV-7)



Gure albotik juan ziñan, baiña zure irribarrea eta maittasuna beti egongo dira gure bihotzetan.

ETXEKOEN PARTEZ



Dena prest institutuko en Egungo Islak zabaltzeko

Datorren asteko barixakuan, hilaren 17an, 19.00etan inauguratuko dute Portalean "Egungo Islak", Ignazio Zuloaga institutuko ikasleen artelanen erakusketa. Badira urte batzuk Ignazio Zuloaga Institutuan Batxilergoa ikasten ari diren gazteen artelanen erakusketa antolatzen hasi zirela eta aurten ere ikasleen, batez ere batxilergo artistikoa ikasten dutenen artelanak ikusteko

aukera egongo da bigarren solairuko erakusketa aretoan, martxan egongo den aste bietan, maiatzaren 3ra arte".

Erakusketaren arduradunek aurreratu dutenez, "ikasleek ikasgai ezberdinetan landutako hamaika lan ipiniko dira ikusgai: marrazketa teknikoa eta artistikoa, diseinuaren oinarriak (barne diseinua, grafika eta industrial), margogintza, zeramika, argazkigintza,

ikus-entzunezko kultura... Artista gazteek gelako egunerokotasunean egiten dituzten lanak erakutsiko dira, hau da, ez bereziki erakusketa honetarako prestatutako artelanak, kurtsoan zehar klasean burutzen dituztenak baizik. Hortik erakusketak Ignazio Zuloaga Institutuaren Egungo Islak izena izatea".



Angel Güenaga irakasleak azaldutakoaren arabera, "ekimen hau 1999-2000 ikasturtean jarri genuen martxan eta, urteak joan urteak etorri, urtean behin egiten den erakusketa dagoeneko ohitura bihurtu da. Azken urte hauetan Portaleko erakusketa aretoan beti gorde izan dute tarteren bat ikasleen lanak hartu eta ikusgai ipintzeko. Erakusketak ikasleei euren lanak herritarrei aurkezteko aukera paregabea eskaintzen

die eta, ikasleak pozik sentitzeaz gain, euren gurasoak-eta ere oso harro azaltzen dira. Aurtengo ediziooko berezitasuna, bestalde, Ikusentzunezko Kultura ikasgairako ikasleek egin dituzten animaziozko filmek osatuko dute. Horrelako jarduerak, ikasleak bakarkako lanetan ez ezik talde-lanetan trebatzeko asmoari ere erantzuten diote, horrelakoen bitartez elkarrekin lana nola egiten den ikas dezaten".



Gazte Oporraldian izena aurrez emateko epea



Astelehenean, hilaren 13an, hasi eta hurrengo martitzenera arte (hilaren 21) egongo da zabalik izena emateko epea.

Hamalau eta hamazazpi urte bitarteko gazteentzat Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero antolatzen dituen "Gazte Oporraldiak 2015" udalekuetara joan nahi dutenentzat izena aurrez emateko epea datorren astelehenean, hilaren 13an zabalduko dute eta, interesa dutenek, hilaren 21ra arteko epea izango dute horretarako (zozketa apirilaren 29an egingo dute). Gazte aisialdirako eskaintzan, betiko moduan, abentura, kirola eta hizkuntza uztartzeko tarteak izango dute gazteek. Informazio guztia www.gipuzkoa.net/oporraldi helbidean eskuagarri dago edo, nahiago izanez gero, 943445980 telefono zenbakira deitzeko edo Portaleko lehen solairuan dagoen Gazte Informazio Bulegora joateko aukera ere badago.

ENRIQUE GARCIA GARCIA

II. urteurrena: 2013-IV-14

Gure bihotzetan zaude egunero. Maite izan zaitugu eta beti maitatuko zaitugu.

ZURE FAMILIA



Oin dala urte batzuk egitten zanari heldu detse barriro be Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordekuak eta Mendiko Astia antolatu dabe datorren asterako. Aurretik be hitzaldi batzuk antolatu zittuen, "astero bana", baiña oinguan aste berezixa eskinduko deskue. Hurrengo urtietan be jarraitzeko asmuarekin, gaiñera. Oin dala gitxi izandako Bilbao Mendi Film Festivaleko pelikulak ekarriko dittue okasiñorako, "Tolosa, Gasteiz eta Getxora be eruaten dirala aprobetxatuta". Mendi batzordian urteroko egitarauari jarraitzen detse eta, nola ez, Aste Santuan beste etapatxo bat bete dabe. Euren ahalegiñen artian, gaztiak erakartziarena dago: "Elgoibar eta Soroluzeko mendi alkartiekin batera horretarako antolau dittugu lau urteera aurten, oin dala 30 urte egitten zan antzera. Bi alkarte horretan gaztiekin funtzionatzen dabe. Pirinioetara eta Picos de Europa egingo dittugu urterok, astebukaera osorako eta prezio nahiko merketan, 60 eurora be ez da heltzen" diñoskue arduradunak. Bestalde, aurreko ohitturak berreskuratze, haur eta gurasuekin be "proba pare bat" egitteko asmua dake



Aureskua dantzatzen.



Aste Santuko irteera Ribagorazara.



Mendizaliendako aste berezixena

Astelehenetik barixakura arteko programaziñua edozein mendizale asetzeko modukua da. **Lehelengo egunian** hitzaldixak izango dira protagonista, bixak be **Klub Deportibuan** eskinduko diranak eta ordubeteko iraupenarekin: 19.00etan hasitta, Jose Antonio Vazquezek elikadurak kirolian dakan garrantzixaren inguruan jardungo dau, gazteleraz; behin hori amaittuta, Javier Iturritxak bi liburuen aurkezpena egingo dau, euskeraz. "Aristas y crestas de Euskal Herria" eta "Barrancos y cañones de Euskal Herria" dira hórrek liburuok. Ekitaldixa, beraz, 21.00ak bueltan amaittuko da.

Martitzenian ikus-entzunezkuen ordua iritsiko da eta **Portalean** emongo dira bixak, hórrek be ordubeteko iraupenarekin baxotxa: 17.00etan Ibon Mugerzak "Sunnyata Lapse" eskinduko dau, berak izandako moto-istripu baten ondoren zelan moldatu bihar izan dan erakutsiko deskuna, euskeraz; jarraixan Mikel Zabalza Alberto Iñurrategiren sokakidiak "El placer de descubrir" emongo dau, gazteleraz.

Eguazten eta eguena Coliseoan

Hurrengo bi egunak be ordutegi bera izango dabe, hau da, 19.00etan hasi eta 21.00etan amaitzeko. Oinguan baiña Coliseo antzokixak hartuko dau lekukua, Bilbao Mendi Film Festival-eko onena dattatzeko aukera eskintzeko. **Eguaztenian**

Nick Waggoner-en "Afterglow" lana eskinduko da (12 miñutukua) eta kirola eta abentura lotzen dittuana, eskixa ardatz hartuta. Jarraixan, "Valley Uprising" Bilboko Festival-eko pelikularik onena eskinduko da (98 miñutukua), eskaladia protagonista dala. **Hurrengo egunian**, eta toki berian, hiru proieksiño eskinduko dira: Guido Perriniren "Mission Antarctic" (33 miñutukua eta snowboard-en ingurukua), Bartłomiej Swiderskiren "SATI" (mendizaletasunaren bueltan eta 25 miñutukua) eta Jeremy Collins-en "DRAWN" (eskaladia ardatz dala eta 40 miñutukua). Bost euro ordaindu biharko da egun bi horretako funziñuak ikusteko.

Praktikatzeo aukeria

Azken egunian, **barixakuan**, mendixa Toribio Etxebarria kalera gerturatuko jaku eta programaziñua, gaiñera, beste ordubete luzatuko da. Arratsaldeko 18.00etan hasiko da "Slackline, probatu zure oreka" egitasmua. Jende guztiarentzako kirol osasuntsua da slackline-a eta, Orekan Slackline Bizi alkarteko Jose Cresporen eskutik aukera izango dogu modan dagan kirola ezagutzeko: "Orekaren abenturan murgilduta, gure gorputza eta burua trebatzen ikasiko dogu, gure gaitasun fisiko eta psikikua hobetuz". Horrez gain, Klub Deportiboko eskalataziillak umiei lagunduko detse parrokixa azpiko horman, T. Etxebarria kalia, kirol hori gertutik ezagutu eta praktikan jartzeko.



Aste Santuko mendi irteera

Goizeko 06.00etan abiatu zan Eibartik 20 mendizalek osatutako taldea Aragoiko Ribagorza eskualdera eta Graus bertako hiriburuan hartu zeban ostatu, Lleida Hotelian hain zuzen be. Kranpoiak hartu eta bost eguneko mendi-ibillaldiak zittuen zain, iñolako arazorik gabe burututakuak. Eguen Santuan Santa Cruz de la Serosetik urten eben eta, Cuculo (1.552 m.) eta Pico San Salvador (1.547 m.) gaiñetik pasatuta, San Juan de la Peñara heldu ziran. Hurrengo egunian, barixakuan, Congost de Mont-Rebeitik Corçara juan zan menditaldia, hor Montfalco ikusgarritik pasatuta. Hirugarren egunian, Liert-etik abiatu eta, 2.492 metroko Turbon gaindittuta, Vilas de Turbonera heldu ziran, juan-etorriko 26 kilometruak zazpi orduko etapa luziari ekiñaz. Domekan Serraduitik Beranuyra juan ziren, tartian Puy Alto (1.778 metro) eginda. Eta, azkenik, astelehenian Riglosko itzuli motza egin zeban hogeit laguneko taldiak,



Montfalcon esperientzia politta bizi izan zeben Klub Deportiboko mendizaliak.

bertako aterpetxian bazkaldu eta etxera bueltatu aurretik. Bestelako aukerak presatuta bazeken be, egurdixa lagun izan

dabenez, ez detse ordezkueri heldu bihar izan eta "hasierako asmuak beteta" bueltatu dira. "Egurdia ona, haize piska batekin" izan dabe eta "edur piska bat be zapaldu" zeben Turbon billa, "tontorrian elurrik ez baeguan be". Montfalcon be "jende asko zebillen" gozatzeke moduko bidean, "hori bai, ibilli egin bihar", diñoskue oporrak modu berezi horretan pasau dittuenak. Azken egunean hiru orduko zeharkaldixa egin zeben "Ferratak eskalatzeko eskola dagan ingurunion". Hogeit laguneko taldea ezin aproposagua izan da, "ibillitako eremuetan autobusak motzak izan bihar ziralako derrigorrez". Aste Santuko mendixen bedekapenarekin!



Amerikar kontrakulturari buruzko historiarik haundixena Yosemite Valleyko eskalatzailiena da.



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

M^a JOSE RUIZ DE PORRES Doktorea
GINEKOLOGOA

T. Etxebarria, 4 - 1. ezk.

LEKUALDAKETA
Orain
MADINA
ERRADIOLOGIAN



Tel. 943-202857

ZU ZAINTEKO ZERBITZU ONENA
eskaintzeaz gain, profesionaltasunari
eta pazientearekiko tratu atseginari
eusten jarraituko diogu.

VALENCIAGA MEMORIALAREN edizio ezin ikusgarriagoa

Aurtengo lasterketa aurreko urteetan baino gehiagotan pasatuko da Eibartik, antolatzaileek aurreko martitzenean egindako aurkezpenean azpimarratu zuten, "modu horretan txirrindularitza zaleei gehiago gerturatzeko asmoz". 38.000 euroko aurrekontua izango du ahalegin handiz Eibarko Txirrindulari Elkarteak prestatutako probak eta, Enekoitz Lazarobaster zuzendariak adierazi zuenez, "zazpi txirrindulariz osatutako 25 taldek hartuko dute parte domekako lasterketan; guztira, beraz, 175 txirrindulari izango dira irteeran". Denboraldi bikaina egingen diharduen GSC Blagnac VS31 Frantziako taldea izango da euren artean; Andalucia-Trebujena eta Keith Mobil Murcia, bestalde, ez dira hor izango.

Helmuga Isasi gainean


Ia 160 kilometroko ibilbidea izango du Valenciaga Memorialaren 44. edizioak. Irteera neutralizatuan, Untzagatik Azeitainera joango da tropela 09.00etan irteera ofiziala egitera. Debarako bidea hartuko du ondoren eta, Itziar eta Meagas



mendateak gaindituta, Zarautzeraino joko du. Ondoren, handik bueltan, Itziar gaina bilatuko dute berriro Eibarre-ra bueltatzeko. 11.00ak inguruan sartuko dira txirrindulariak Maltzagatik eta, behin Untzagara helduta, Karabieta gainerik Elgetarantz joko dute. Handik Bergarara jaitsiko dira eta, Soralezetik Maltzagara etorri ondoren, Elgoibarko bidea hartuko dute San Miguel gaina pasatu eta, jarraian, Ixua gainditzeko 12.30ak inguruan. Helmuga, azken edizioetan bezala, Armeria Eskolaren aurrean egongo da eta lehenak 12.45etatik 13.00erako tarte horretan iristea espero dute antolatzaileek.



Aurreko asteko martitzenean egin zuten aurkezpena Udal Pleno Aretoan.



Aldaketak amaieran

Azken urteotan Euskal Herriko Itzuliaren aurretik jokatu den lasterketa oraingoan hura amaitu eta hurrengo egunean izango da. 159'7 kilometroko probak azken zatian izango dituzte aldaketa handienak. Txirrindulariek San Miguel gaina oraingoan ez dute Markinatik igoko, Elgoibartik baizik, eta handik Etxebarria joango dira Ixua aurreko urteotako beste norabidean igotzeko. Hortik helmugara jaitsiera izango da dena. Igotzaileentzat apro-

sagoa da amaiera hori, eremu laua ezabatzen baita aurretik. Aldaketa horrekin batera, Karabieta igoerakoa ere bada: oraingoan ez da Bergararik egingo, Eibartik baizik, Asentziaraino luzatuta. Afizionatuen mailako Espainiako Kopako probarik garrantzitsuenak aurretik izan duen interesa bikoiztu egingo da modu horretan eta Eibarko Txirrindulari Elkartearen antolatzaileek tropelaren talde eta txirrindulari handienak ekarriko dituzte gure errepideetara.

Isasi, 31
943 207 737
Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTINDO

Ogi **ARTISAUA** eta
BASERRIKO ogia
Eibarko prezio
merkeenetan!!

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelararik euskarara,
eta ingelesez euskarara.
ZERBITZUA
elkarte@etakitto.com

XLIV. VALENCIAGA OROITZARREA (apirilak 12)



GARAILEA



MENDIA



TARTEKO HELMUGAK



23 URTETIK AZPIKO ONENA



SAIATUAREN SARIA



LEHENENGO EUSKALDUNA

TALDEKAKO SAILKAPENA: Eibarko Txirrindularitza Elkarte / **DEBABARRENAKO ONENA:** Goritz Hornikuntzak, S.A.



UDABERRI SARIA
martxoak 2



OTXOA OROITZARREA
martxoak 22



SAN JUAN SARIA
ekainak 14



PEDAL EGUNA (irailak 20): Birjiñape kafetegia

LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udal Kirol Patronatua
- Radio Eibar
- Izadi Loradenda
- Zirauna (Kirol Jantziak)
- Birjiñape Kafetegia
- Ketesa
- Casa Cantabria
- Casa Galicia
- Gestilan - Aholkularitza
- El Corte Inglés - Eibar

- Goritz Hornikuntzak, S.A.
- Marqués de Saka Ganadutegia
- Azitain Jatetxea
- Mapfre
- DYA - Eibar
- S.C.R.G. Bide-Alde
- S.C.R.G. Kamarroak
- Trinkete Garagardotegia
- CDR-Bikes Eibar
- Andoni Retenaga (EBK-Eibarko Bizikleta)
- Pneumax

- Kantoi Zerbitzu Estazioa
- Oberena Harategia
- Ezpeleta Ehun-Ostalaritza
- El Castillo Hotela
- Perlakua Agroturismo-Jatetxea
- Kalitatea
- Asimair Konpresoreak
- Premier Bidaik
- Guria Elektrizitatea
- Arkupe Gastro Pub
- Hotel Unzaga Plaza

Binakako finalerako txartelak izango dira jokoan Astelenan

Berasaluze II.ak eta Zubietak (azken honek eskuko minari aurre egin beharko badio ere) Ezkurdia eta Zabaleta bikotearen aurka izango duen lehiak erabakiko du eskuz binakako txapelketa nagusiaren finalean zeintzuk jardungo duten Bengoetxea VI.aren eta Untoriaren kontra. Partidu erabakigarria guztiz, beste inoren menpe egon gabe laukoteak bakoitzak bere buruarendako

jokatuko duelako. Astelenak ere egun berezi horietako bat biziko du domekan eta sarre-rak Aspeko telefonora deituta eskuratu daitezke (661-259009, Olayari eskatu). Jaialdiko lehen partiduan ere partidu interesgarria iragarri dute: Xala-Cecilio eta Jaunarena-Rezusta bikoteen arteko jokatuko da, nor baino nor. Azken partiduak ere badu interesa, promozio mailako bi-



Zabaleta, Ezkurdia, Berasaluze eta Zubietak, zirt edo zart egiteko prest.

nakako txapelketako finalera zein pasatuko den erabakiko baita hor: Rico IV.a-Larunbe

eta Mendizabal III.a-Urruzola bikoteen artean irabazleak egingo du aurrera.

Ipuruako gimnastak podiumetik jaitsi barik azken torneoetan

Donosti Klubaren XIII. Torneoan izan ziren Ipurua Klubeko kadete, amateur eta eskola taldeak, hainbat sari bereganatuz. Horrela, Elene Varelak zilarrezko domina irabazi zuen kadete oinarrikoan eta amateur eta eskola mailako talde biek podiumera igotzea lortu zuten. Jubenil A taldea bigarren



Elena Sudupek urrezkoa lortu zuen Oskitxo Torneoan.

sailkatu zen bost pare mazekin egindako ariketan eta infantil A hirugarren postuan geratu zen bost areekin burututako ekinaldian. Hurengo egunean Gasteizeko Oskitxo Klubaren 8. edizioan hartu zuten parte alebin A mailako Ipuruako bi taldeek, 2. eta 4. postuan sailkatzeko. Maila indibidualean, gainera, Nahia Gonzalezek infantil A mailan, Arrate Barojak kadete A-n eta Ane Dávilak kadete B-n urrezkoa eskuratu zuten. Lorpen horiei gehitu behar zaie federatuen mailan Elena Sudupek eskuratutako urrezkoa.

Bihar, bestalde, federatuek hitzordua dute Azkoitian, Euskal Ligako 2. fasean, eta hemendik zortzira amateur eta eskola A-koen txanda izango da, azken hori Gipuzkoako txapelketarako baliagarria. Lehen fasean eskuratutako lorpenei esker, eibartarrek oso ondo kokatuta egingo diote fase berri horri.



Arruabarrenak bolada txarrenekin amaitu zuen.

Mila eta bostehun eibarzale Bernabeura

Bihar 16.00etan erronka handia izango dute Garitano-ren mutilek Madrilgo Santiago Bernabeun, Real Madril aurre egin beharko diote-eta. Neurketa zaila izango da benetan eibartarrentzat madrildarrak puntuak galtzeko ez daudelako; hala ere, beste patxada batean joan dira jokalaria, indarrak berreskuratuta, Malagari irabazi ondoren. Gainera, 1.500 jarraitzaile inguru izango dituzte animatzeko prest, guztiendako partidu berezia izango dena ez galtzeko asmoarekin. Handik bueltan, eibartarrek Celta hartuko dute Ipuruan.

Urkiko infantilak txapeldun Salouko Torneoan

Costa Daurada Cup nazioarteko tomeoko sari nagusia Eibarrera etorri zen aurten, Urkiko Ohorezko infantil mailako taldea Madrilgo biri eta Irlandako, EEBB-etako, Kataluniako eta Nafarroako ordezkari nagusitu zitzaizen-eta. Saloun jokatutako partiduetan, lehenengoa bana berdindu zuten Urkikoek eta beste guztiak irabazi ondoren: 5-1, 4-1, 4-1 eta 2-0. Finalean, bestalde, Eibarko taldea 2-0 nagusitu zitzaion Ardoi nafarrari. Horrez gain, Kesley Losada aurrelaria izan zen goletzaille nagusia, 11 golekin; gainera, Urki izan zen gol gutxien jaso zituen taldea.



17 jokalarik eta 40 zaletuk osatutako taldea izan zen Saloun irabazitako Costa Daurada torneoaz gozatzen. Urkiko taldeak 17 gol sartu zituen eta lau bakarrik jaso torneo guztian.

Herriko atletak pista estaliko denboraldi bikaina egin dute

Eibarko Klub Deportiboko atletak maila bikainean jardun dute atletismo denboraldiaren lehen erdian, orain arte jokatu-tako pista estaliko txapelketetan. Gazteenetik hasita, alebinetan Gorka Kareaga onena izan zen Donostiako nazioarteko krosean eta Lazkaon, 2.a Elgoibarren, 3.a Zarautzen eta 4.a Irunen eta, horrez gain, Euskadiko txapela jantzi zuen Hernanin. Naz Lizundia (Gipuzkoako bigarrena martxan), Kepa Markez, Jone Akuña, Garaia Magunazelaia, Jokin Amorrosta, Eneko Abajo eta Aner Ortiz de Zarate ere ondo ibili dira maila horretan. Infantiletan, bestalde, Gaizka Cortesek eman du maila gorena: hirugarrena izan zen Zarautzen eta bosgarrena Hernanin jokatu-tako txapelketan. Maila horretan progresio polita erakutsi dute Eneko Osorok, Aratz Morak eta Ekain Egurrolak baita ere.

Vouilloz, Espainiako hirugarrena

Tomas Vouilloz juniorrak zilarrezko domina irabazi zuen 60 metro hesietan eta brontzezkoa 60 metroko abiadura proban, kasu bietan Gipuzkoako txapelketetan. Horrez gain, Euskadiko txapela jantzi zuen heptatloian, eta pertigarekin 3. postuarekin konformatu behar izan zuen. Espainiako junior selekzioarekin izan zen Nogent-en jokatu-tako nazioarteko lehiaketan eta, hortik aparte, heptatloian Espainiako brontzezko domina irabazi zuen.

Jubeniletan ez dira rol gutxiagorekin konformatu eta Julen Teran, esaterako, Gipuzkoako bigarrena izan zen 800 metrotan

eta hirugarrena altueran, Euskadikoan 400 metrotan lortutako laugarren postuarekin batera. Krosean aurreneko postuetan ibili da beti eta, Azpeitiko bereganatzeaz aparte, 2.a izan zen Irunen eta Eibarren, 3.a Euskadiko txapelketan, 7.a Donostian eta



Gorka Kareagak aurreko postu asko lortu ditu.

8.a Burlatan. Maila horretan, Andoni Egurrolak Euskaiko txapela jantzi zuen jabalinan, gutxiengo lortuta Espainiakorako eta selekzioarekin Leonen parte hartuta; Markel Gutierrez, berriz, Gipuzkoako txapela jantzi zuen martxan eta Euskadiko bigarrena izan zen modalitate berean eta jabalinarekin; Eneko Gisasolak 3. postua eskuratu zuen Gipuzkoakon pertigarekin eta baita Euskadikoan jabalinarekin; eta Odei Jainaga



Tomas Vouilloz.



Euskadiko txapeliduna izan zen jabalinan. Ikusten denez, potentzia handia du Deporrek jaurtiketa modalitateetan; eta ez bakarrik mutiletan! Nesketan, esaterako, Elena Susaeta Euskadiko onena izan zen jabalinarekin eta bigarrena Gipuzkoako txapelketan, bai pertigan eta baita pisu jaurtiketan ere; Jone de Castrok jabalinako Euskadikoa bereganatu zuen; Alaitz Gonzalez Euskadiko 3.a izan zen jauzi hirukoitzean; Maialen Martinezek postu bera eskuratu zuen txapelketa berean eta altuera modalitatean; Nerea Etxaniz Gipuzkoako onena izan zen 5.000 metrotan eta, ez hori bakarrik, Euskadiko txapela ere jantzi baitzuen.

Talde lan handiaren emaitzak

Aurrez aipatutakoei astekari honetan oihartzun handiagoa izaten duten beste hiru atleten lorpenak gehitu zaizkie: Pello Osorok postu bikainak eskuratu ditu kros denboraldian eta txapeliduna izan da 5.000 metrotan; Txomin bere anaiak 3. postua lortu zuen bai Eibarren eta baita Irunen ere; eta Aitziber Urkiola 3.a izan zen Irunen eta 6.a Eibarren. Klub Deportiboak osatutako talde hau Inma Urkiolak urtetan egiten diharduen emaitzeetako bat da, tartean eta berak dioenez, "eguneroko lanaren fruitua, ia egunero entrenatzen baitute". Horretarako, jakina, ez dago bakarrik: Maider Blasco, Naiara eta Cristina Larrea, Edorta Aranburuzabala, Gorka Zuazo... eta Petrus erregaitza ere zeregin horretan dihardutelako.





El Capitan Elefante, zapatuan Belekon

Bihar 22.30etatik aurrera El Capitan Elefante taldeak kontzertua emango du Beleko tabernan. Indie Rock-a gaztelerazko hitzekin eskaintzen dituen taldea 2011n sortu zen Bilbon, baina osatzen duten lau kideek aurretik ere ibilbide luzea, hamabost urtetik gorakoa egin dute musikagintzan eta hamar diskotik gora eman dute argitara: Javier Marcos (gitarra eta ahotsa), Jaime Marcos (gitarra), Jose Arribas (bajua) eta Josean Valle (bateria), lauek elkarrekin osatzen dute El Capitan Elefante. Konparazioak konparazio, taldearen musikak bati baino gehiagori Lemonheads, Placebo, Pearl Jam, The Clash, Radiohead, Stranglers, The Jam, Los Enemigos, Los Piratas eta Los Planetas taldeena ekarriko dio gogora. Edozein modutan, taldea ezagutzen dutenek diotenez. Gainera, kontzertua parean emanez gero aprobetxatzeko moduko aukera ei da, bestela euren musika etxeraino nekez eraman daitekeelako, orain arte "Nuevas coordenadas" 2013an Mungiako Gaia estudioetan grabatutako LP-a eta "Agoraphobia" (2015), taldearen hurrengo lana izango denaren aurrerapenarekin grabatu duten EP-a baino ez dituztelako kaleratu.

Josu Bergara, 17an

Bestalde, Aste Santu aurretik kaleratutako aldizkarian, Josu Bergara & The Akorde Txikiak-en kontzertuari buruz eman genuen informazioa ez da zuzena, datarekin nahastu ginen eta: aldizkarian martxoaren 27rako iragarri genuen kontzertua, antolatzaileek kontzertu hori atzeratzea aspaldi erabaki zutela jakin barik. Edozein modutan ere, datorren asteko barixakuan (apirilaren 17an) hartuko du Beleko tabernak Josu Bergara & The Akorde Txikiak-en zuzeneko emanaldia.

Transmisioari buruzko Mintegia maiatzean

Beste batzuetan baino geroago, maiatzaren 25ean egingo da ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako Euskeraren Transmisioari buruzko Mintegia oraingoan. Orduzuzen ere aldaketak egin dituzte, aurten mintegia bakarrik goizez, 09.00etatik 14.45etara izango da eta. Hala ere, denek elkarrekin bazkaldu eta bazkalosteko tertulia eta eztabaidatan lasai aritzeko tartea egingo da.

...eta kitto! 15/IV/10 • 925 zkia.

Voces y Cuerdas, bihar Elgetan


Elgetako Espaloia kafe antzokiak Latinamerikako musikari eskainitako emanaldia hartuko du zapatu gauean, 22.30etatik aurrera, Voces y Cuerdas taldearen kontzertuan. Marivi Murillok (ahotsa), Vicente Ramirezek (ahotsa eta gitarra), Eduardo Gordillok (re-kintoa) eta Aitor Errastik (ahotsa eta perkusioa) osatzen duten Eibarko talde ezagunak orain dela hilabete batzuk jo behar zuen Elgetan, baina elurra egin zuenez kontzertua bertan behera laga behar izan zuten, negua igarota aurrerago eskaintzeko esperantzarekin. Taldearen betiko estiloari jarraituta, biharko kontzertuan boleroak, rantxerak eta kanta kubatarren bat eskainiko dutela aurreratu dute.



Boleroak eta rantxerak izango dira nagusi biharkoan. SILBIA HERNANDEZ

Argazki erakusketa berriak

Hileroko moduan, apirilean ere argazkiekin gozatzeko aukera izango da ohiko tabernetan, Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek antolatutako erakusketei esker. Hilaren 30era bitartean, El Ambigu tabernan Javier Alonsoren "Bilbao B&N" izenburuko egongo da ikusgai eta Portalea tabernan, berriz, Mikel Urionaguena-ren "Txonta" argazki bilduma hartuko du. Oraingoan, gainera,



Mikel Urionaguena

Txonta

2015.04.01
2015.04.30
Portalea taberna
Eibar

Deporreko argazkilarien lanak herrian ez ezik herritik kanpora ere ikusteko aukera egingo da, datorren asteko martitzenetik (14tik) hilaren 30era bitartean Juan Antonio Palaciosen "Paisajes naturales" izenburuko erakusketa Soroluzen ikusgai egingo da eta, lan egunetan 19.00etatik 20.30etara eta zapatuetan, berriz, 12.00etatik 13.30etara.

Leo Harlem-en ikuskizun berria

Datorren asteko barixakuan, 20.30etatik aurrera Leo Harlem komikoaren bakarriketa berriarekin ondo baino hobeto pasatzeko aukera egongo da Coliseo antzokian. "Trending" (tendentzia, gomendioa) eta "Tronching" (barrez lehertuko zara) hitz majikoak batuta, bi premisa horietatik abiatuta sortu da "#Trending Tronching", sorpresaz beteta datorren ikuskizuna. Estatu mailan goren-gorenean dagoen komedia honek "bakarriketa edo stand up comedy sailean umorezko saio bat baino gehiago" aurkezten duela agintzen dute sortzaileek: "Klasikoaren eta modernoaren arteko betiereko borroka adierazten duen izateko eta bizitza ulertzeko modu bat da. Gag ezberdinen bitartez, izan ginena, orain garena eta izatera ailegatu gaitezkeena aldarrikatzen ditu". El Club de la Comedia saioak ezagutzera eman zuten Leo Harlemek oraingoan Corrales Jauna izango du lagun taula gainean. Ikuskizunerako sarrerak 24 euro balio ditu eta aldeztu erosteko aukera dago, interneten (kutxabank.es helbidean) zein Coliseoko leihatilan, astelehenetan 19.00etatik 20.00etara eta barixakuetan 21.00etatik 22.00etara. Bestela, salmenta arrunta ikuskizuna hasi baino ordu bete lehenago hasiko da, txarteldegian bertan.



Eguen Zuriko argazkiak Topalekuan

Aurreko asteko eguaztenean banatu zituzten XVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak Arrate Kultur Elkartearen Felipe Loiola, Juan Antonio Palacios eta Aniaiz Ariznabarretak osatutako epaimahaiak erabaki zue-nari jarraituta, lehen saria Jon Jimenezek jaso zuen, "Prailen hamaiketako" izenburuko lanarengatik; bigarren saria, berriz, Maite Beistegik eskuratu zuen, "Drag queen" argazkiarekin eta hirugarrena Einer Rodriguezentzat izan zen, "Truji" izenburukoarekin. Aurtengo edizioan hamabi partehartzaile izan dira eta guztira 38 lan aurkeztu dituzte. Saritutako lanak zein lehiaketara aurkeztutako beste batzuk domekara arte Topalekuan ikusteko moduan egongo dira.



Jon Jimenezen irudi irabazlea.



Artisten Elkarteko erakusketa

Gaur arratsaldean hasi eta maiatzaren 3ra arte Eibarko Artisten Elkarteko kideen taldekako erakusketa bisitatzeko aukera egongo da Portalean. Urteroko martxari jarraituta, udaberria ailegatzearekin batera Eibarko Artisten Elkarteko 40 bat bazkidek era guztietako teknika eta estilori jarraituta egindako artelanak erakutsiko dituzte bigarren solairuko erakusketa aretoan, ohiko ordutegiari jarraituta: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.

laburrak

SANJUANAK ANTOLATZEN

Jaixak Herrixak Herrixandako elkarteok San Juan jaiak prestatzen joateko bilerekin zieten aurreko astean eta aurrerantzean astero bilduko direla eman dute aditzera. Bilerak barixaku arratsaldetan egingo dira, 18.30etan Txaltxa Zelaiko kioskoan eta herritarrek parte hartzerako animatu nahi dituzte, denek elkarrekin "jai herrikoiak eraikitze"ko".



JAIETARAKO LEHIAKETAK

Urtero lez, ekainean ospatuko ditugun sanjuanen inguruko lehiaketak antolatu ditu udalak: "Sanjuanak Eibarren 2015" kartel lehiaketan zein "Alkohol larregi ez edateko umorezko pegatina" aukeratzekoan parte hartu nahi duenak maiatzaren 8ra arteko epea dauka lanak Pegoran aurkezteko. Informazio gehiagorako Pegoran galdetu daiteke edo, bestela, eibar.eus webgunean begiratu.



Ustekabeko Beñat Etxaberi saria

Martxoko azken asteburuan Leioan jokaturako "Cesar Uceda" Espainia mailako lehiaketan bonbardinoarekin hirugarren saria eskuratu zuen Beñat Etxabe (Zestoa, 1994) Ustekabeko kideak. Gazte sariduna Ikasturte honetan Ustekabera batutako kideetako bat da eta, txaranga normalean tronboiarekin jarduten badu ere, fanfarreko lagunek azaldu dutenez *"berez bonbardinoa jotzen du eta tubarekin ere trebea da. Ustekabe osatzen dugunok harro gaude Beñat taldekide izateaz eta lortu duen sariarekin. Sariak, gainera, Ustekabe fanfarreak kalitatez jotzeko duen ahalmena berresten du"*.

hildakoak

- Manuel Treviño Garitaonandia. 82 urte. 2015-III-26.
- Txomin Oñederra Agirregabiria. 67 urte. 2015-III-27.
- Serafin Alvarez de Arcaya Aginako. 84 urte. 2015-III-27.
- Juana Calleja Fuentes. 91 urte. 2015-III-27.
- Nieves Serrano Moreno. 91 urte. 2015-III-29.
- M^a Pilar Zabaleta Gantxegi. 83 urte. 2015-III-31.
- Joaquin Lorenzo Reyes. 90 urte. 2015-III-31.
- M^a Pilar Rielo Errasti. 78 urte. 2015-III-31.
- Vicente Uzkudun Garitagoitia. 79 urte. 2015-IV-1.
- Antonia Airas Dopazo. 78 urte. 2015-IV-3.
- Federico Reyes Dominguez. 62 urte. 2015-IV-3.
- Victor Arranz Garcia. 48 urte. 2015-IV-6.
- Antonio Litago Nasarre. 92 urte. 2015-IV-6.
- Jose Teruel Alonso. 83 urte. 2015-IV-6.
- Josefa Urkidi Arrate. 101 urte. 2015-IV-7.
- Carmelo Ibañez de Garaioa Ibañez. 81 urte. 2015-IV-8.

jaiotakoak

- Martin Regueiro Gerrickaetxerria. 2015-III-18.
- Ramiz El Mezouary. 2015-III-23.
- Irati Ziarsolo Lopez. 2015-III-24.
- Alaitz Telleria Laskurain. 2015-IV-1.

Harixa Emoten, datorren astean

Hilean behin Portalean egiten den Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko irakurketa klubaren hurrengo saioa datorren astean, martitzenean egingo da, betiko lez 19.00etan hasita. Apirileko saioan Danele Sarrugarte elgoibartarrak hartuko du parte, "Erraiak" iaz argitaratu zuen lanari buruz irakurleekin berba egiten. Eleberriak bikote haustura mingarri bat du abiapuntutzat, baina irakurleari emakumezko baten kontakizuna baino ez zaio ailegatuko, obsesio bihurtuta, gainera. Lana eza gutzen dutenek, idazlea pertsonaiaren barrunbeetan ez ohiko intentsitatez barneratu dela diote, "pertsonaiaren barrunbeetan, haren zorrik ezkutuenak, erraiak, agerian utziz, ez bere buruaren ez inoren aurrean biluzteko lotsarik gabe" eta hortik "Erraiak" izenburua.



Felix Morquechori saria Elgoibarren

Elgoibarko Mintxeta Atletismo Taldeak estreinekoz antolatu duen Mugertza krosari buruzko argazki lehiaketan lehen saria Felix Morquecho argazkilaria eta kazetaria eibartarrak eskuratu du, lasterketan bigarren sailkatu zen Polat Kemboi Arian-i aurtengo Mugertza krosean egindako argazkiarekin. Bigarren saria Vicente Guinearentzat izan da eta Miguel Castrok, berriz, herritarren saria jaso du. Lehiaketara 40 argazki aurkeztu zituzten eta, sari nagusiari dagokionez, argazkiaren "enfokea" eta "lerrokadura" nabarmendu dituzte antolatzaileek, "transmititzen dituen sentimenduekin" batera. Morquechori lehen saria eman dion argazkian probako lehen lau sailkatuak ageri dira, lerroan, azken metroetan, baina irabazlean beharrean, argazkilaria txapel-dunordearengan jarri ditu argia eta enfokea. Izan ere, argazkilaria berak dioenez "oso ezberdina baita irabazlearen aurpegiak eta txapel-dunordearenak adierazten dutena". Nahi duenak, www.felixmorquecho.com helbidean ikus ditzake Felix Morquechoren lanak.



Gaztelekuen topaketa Deban

Zapatuan 13 urteko 60 bat gazte elkartuko dira Deban, lehenengoz egingo den Gaztelekuen arteko topaketan (argi ibili, topaketa dela eta, Indianokua gaztelekua zapatuan itxita egongo da eta). Debako Gaztelekuak antolatutako ekimen berezian Eibarko 25 bat neska-mutirik hartuko dute parte, Debako beste 35 debarrekin batera 11.30ean bilduko dira, 11.42eko trenean ailegatu diren eibartarrei geltokian ongi-etorria egiteko eta goiza Altxorraren Bi-

la jokoarekin emango dute. Ondoren elkarrekin bazkalduko dute. Postrea, Eibarko gazteek prestatutakoa izango da. Arratsalderako musika eta jolas gehiago prestatu dituzte.



laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRAIA, astelehenian lau urte bete zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Anere partez.



Zorionak, IMANOL, martxuaren 30ian urtiak bete zenduaz-en-eta. Besarkada eta laztan haundi bat lagun guztien partez.



Zorionak, JULEN, haraiñegun urtetxua egin zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat aitaxo, amatxo eta Unairen partez.



Zorionak, LIZAR, mutil haundi: apirilaren 14an urte bi! Patxo haundi bat etxekuon eta, batez be, Malen eta Intza lehengusiñen partez.



Zorionak, JON, aste honetan bost urte egin dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be; iñigo, Eder eta Gariren partez.



Zorionak, HELENE, hillaren 3an hiru urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixa eta, batez be, Naiaren partez.



Zorionak, HIART, hillaren 5ian lau urte bete zenduaz-elako. Osaba-izekoren partez.



Zorionak, ANTON!! Aitxitxa Txomin, amama Maria Luisa eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NAGORE, martxuaren 31n 10 urte egin zenduaz-en-eta. Muxu bat etxekuon partez.



Zorionak, IGOR, mutil haundi, hillaren 3an 6 urte egin zenduaz-en-eta. Muxu potolo bat etxekuon partez.



Zorionak, CLAUDIA, apirilaren 5ian zortzi urte egin zenduaz-en-eta. Famelixakuen partez.



Zorionak, NAHIA, hillaren 6xan bost urte egin zenduaz-elako. Muxu asko famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO eta MARKEL Olañeta, hillaren 2xan lau urte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MADDALEN eta ELENE!!! Jarraittu ametsak betetzen!!! Muxu haundi bat.



Zorionak, IZARO, apirilaren 3an zazpi urte bete zenduaz-en-eta. Famelixaren eta, batez be, Unairen partez.



Zorionak, JESSICA, zure gurasuen partetik. Mikel eta haren famelixa.

(1 ARETOAN)
11n: 17.00, 19.45, 22.30
12an: 17.00, 20.00
13an: 20.30

"Mortdecai"
 Zuzendaria: David Koepf



(2 ARETOAN)
11n: 17.00, 19.45, 22.30
12an: 17.00, 20.00
13an: 20.30

"Txarriboda"
 Zuzendaria: Javier Rebollo



(ANTZOKIAN)
11n: 19.45, 22.30
12an: 17.00, 20.00
13an: 20.30

"Insurgente"
 Zuzendaria: Robert Schwenke



zineaColiseoan

(ANTZOKIAN)
11n: 17.00
12an: 17.00
"Cenicienta"
 Zuzendaria: Kenneth Branagh



BARIXAKUA 10

GAZTELEKUA

16.30. Sukaldaritza. Indianokuan.

GURE ESKU DAGO

19.00/20.00. "Erabakia ehuntzen" ekimenerako oihalen eta bestelakoen salmenta. Deporren.

ZAPATUA 11

ATE IREKIAK

11.00/14.00. Gerra Zibilaren interpretazio zentrua ezagutzeko ate irekien jardunaldia. Arrateko kolonian.

OSPA HAMENDIK EGUNA

11.00. Mahaingurua: Oñatiko Fan Hamendik, Ondarruko esperientzia (Andoni Argoitia), Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra Egiguntarren kalean. Arrate Kultur Elkartearen.

18.30. Trikipoteoa, Untzagatik hasita.

20.30. Kontzertuak: Pottors Ta Klito (Zarautz), Gadafistes Brothers (Oztibarre), Bastardos del rey (Bilbo) eta Eroa Naizen (Eibar). 3 euro. Gaztetxean.

EKITALDI POLITIKOA

19.00. EH Bildurena, Eibarko zerrendaren aurkezpena egiteko. Untzagan.

KONTZERTUA

22.30. El Capitan Elefante. Beleko tabernan.

DOMEKA 12

TXIRRINDULARITZA

09.00. 44. Valenciaga Memoriala. Azitaindik hasita. Helmuga Isasin (12.45-13.00).

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

ASTELEHENA 13

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

12.00. Inaugurazioa. Portalean.

17.00. Mahai-jokoan txapelketa. Ipuruako jubilatutuean.

HITZALDIA

19.00. "Pepe Mujica, la revolución tranquila" dokumentala. Jarraian, mahaingurua Julio Flor eta Jose Fdez. de la Sotarekin. Ezkerra-Berdeak antolatuta. Portalean.

MENDI ASTEA

19.00. "La importancia de la alimentación en el deporte" hitzaldia, Jose Antonio Vazquezen eskutik.

20.00. "Aristas y crestas de Euskal Herria" eta "Barrancos y cañones de Euskal Herria" Javier Iturritxaren liburuen aurkezpena. Klub Deportiboan.

MARTITZENA 14

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

11.00. Toka, petanka eta igel-toka txapelketa. Ipuruako bolatokia.

16.00. Txokolate-jana. San Andres zaharren egoitzan.

19.00. Umorezko solasaldia, Juan M^o Narbaizaren eskutik. Beheko Tokian.

JOSKINTZA-PUNTO TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

HITZALDIA

18.00. "Euskal Errepublikak", Sabino Cuadraren eskutik. EH-Bilduk antolatuta. Kulturalean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Literatur tertulia: "Erraiak", Danele Sarriugarterekin. Portalean (liburutegian).

MENDI ASTEA

19.00. "Sunnyata Lapse" Ibon Mugerzaren ikus-entzunezkoa. "El placer de descubrir" Mikel Zabalzaren ikus-entzunezkoa. Portalean.



EGUAZTENA 15

MENDI ASTEA

19.00/21.00. Bilbao Mendi Festival-eko onena: "Afterlow" (Nick Waggoner) eta "Valley Uprising" (Mendi 2014ko film onena). 5 euro. Coliseoan.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

HITZALDIA

19.30. "Que tus huesos y tus pies no te amarguen la vida" hitzaldia, Poliklinika Gipuzkoako Josu Arrieta eta Ignacio Carrilloren eskutik. Portalean.

EGUENA 16

ENPLEGU-TAILERRA

10.00/12.00. "Descubre tu potencial". Portalean (ikastaro gelan).

BATUKADA

18.00. Batukada feministarako entsegua. San Andres eskolan.

MENDI ASTEA

19.00/21.00. "Mission Antarctic" (Guido Perrini), "Sati" (Bartłomiej Swiderski) eta "Drawn" (Jeremy Collins). 5 euro. Coliseoan.

KALERATZEAK STOP

19.00. Plataformako bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Ideiak argitu ezinik zabilta eta korapilo demasa duzu buruan. Ez izan hain hotza eta zabaldu atea sentimenduei.

TAURUS

Laster proiektu interesgarriak agertuko zaizkizu. Adi egon zure poltsikoan eragina izan dezaketean erabakiek.

GEMINI

Lasai hartu gauzak: ez izan presarik. Irrikitzen bazaude ere, gauzak astiro eginez gero, hobeto irteten dira.

CANCER

Gora bihotzak, udaberria iritsi zaigu-eta: berri eta gertaera on piloa duzu zain. Aprobetxatu unea eta ez galdu denbora.

LEO

Hartu berri duzun erabaki horrek poza ekarriko dizu hemendik gutxira. Zoriona hatzamar puntetan! Inbidia ematen duzu.

VIRGO

Alaitu aurpegi hori. Ez duzu arrazoirik triste egateko, dena ondo doakizu-eta. Gainera, zerbait potoloa jasoko duzu.

LIBRA

Beldur eta zalantza horiek uxatu egin beharko zenituzke behingoz! Zuk sortutakoak dira, ez beste inorenak.

SCORPIUS

Nola aldatu zaren azken hilabeteotan... Umekeriak alde batera laga dituzu eta heldutasunez jokatzen hasi zara serio.

SAGITTARIUS

Gezurretan dabilenari antzematen zaio, ez pentsa! Elur bola handitu baino lehen, konpondu endredoa. Mugitu azkar!

CAPRICORNIUS

Zergatik zaude urduri? Eginda dagoena eginda dago, majoi! Lasai, erabaki zuzena hartu duzu-eta. Ez nekatu burua.


AQUARIUS

Nola egin aurre tentazioari? Zure esku dago erabakia. Gauza bakararra esango dizut: egin kasu zure buruari eta kitto.

PISCIS

Urteak betetzea ondo egin dizu: ardoekin moduan, urteekin hobera! Zorionekoa amodio kontuetan ere...

eguraldia



erakusketak

- ✓ **Apirilaren 12ra arte**
XVII. EGUEN ZURI argazki lehiaketako lanen erakusketa. *Topalekuan.*
- ✓ **Apirilaren 24ra arte**
IMANOL ELORZAREN oleo-erliebeak eta MANDIOLA LAGUNTALDEAK bildutako argazkien erakusketa. *Untzagako Jubilatutako Etxean.*
- ✓ **Apirilaren 30era arte**
JAVIER ALONSOREN "Bilbao B&N" argazki erakusketa. *El Ambigu-n.*
MIKEL URIONAGUENAREN "Txonta" argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*
JUAN ANTONIO PALACIOS-EN "Paisajes naturales" argazki erakusketa. *Soraluzeko erakusketa gelan.*
- ✓ **Maiatzaren 3ra arte**
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN erakusketa. *Portalean.*

farmaziak

- ✓ **barixakua 10**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **zapatua 11**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **domeka 12**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **astelehena 13**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **martitzena 14**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
- ✓ **eguztana 15**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **eguna 16**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **barixakua 17**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI -2015EAN-Elorza (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

- SOS deiak 112
- Pegora 010
- Udaletxea 943 70 84 00
- Portalea 943 70 84 39
- Udaltzaingoa 943 20 15 25
- Mankomunitatea 943 70 07 99
- Debegesa 943 82 01 10
- KIUB 943 20 38 43
- Epaitegia 943 03 34 00
- Iberdrola 901 20 20 20
- Naturgas 902 12 34 56
- DYA Larrialdiak .. 943 46 46 22
- Gurutze Gorria ... 943 22 22 22
- Mendaro osp. 943 03 28 00
- Anbulategia 943 03 25 00
- Torrekuia 943 03 26 50
- Errepideak 902 11 20 88
- Ertzaintza 943 53 17 00
- Eusko Tren 902 54 32 10
- Pesa 902 10 12 10
- Taxiak 943 20 30 71
- 943 20 13 25
- Alkohol. Anon. 629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen .. 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.50etara ordu eta 07.15, 08.00, 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Lanegun eta zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatuak eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

EIBAR-LOIU. Egutegia: 05.50, 08.35, 11.35, 14.35, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egutegia: 06.45, 09.45, 12.45, 15.45, 19.15 eta 23.15.

ikastaroak

- ✓ **Argazki-tailerra: "Workshop: retoque y edición digital"**
Ekainaren 6an. Informazioa: argazkilaritza@deporeibar.com
- ✓ **Larrain Dantza ikastaroa**
Apirilaren 14tik aurrera. Kultur. Informazioa: 943-202299.
- ✓ **Jabetze Eskola**
Apirila eta ekainera bitartean. Batukada Feminista (apirilaren 1ean hasita); Amodioa eta sexualitatea bizitzaren bigarren erdian (maiatzaren 8an); Autodefentsa Feminista II (maiatzaren 22an); eta Autodefentsa Feminista gazteentzat (maiatzaren 29an). Izen-ematea: Pegoran.

				6	7		
6			1				5
	2	5	3				1
		9		3			6
			1	8	5		
	5			4		2	
	6						
1				3	1	7	
		4	5				

SUDOKUA

2	9	8	3	1	4	6	7	5
6	5	4	2	7	8	9	3	1
3	1	7	9	6	5	2	8	4
9	2	6	1	8	7	4	5	3
7	4	5	6	9	3	1	2	8
1	8	3	4	5	2	7	6	9
5	3	1	7	2	9	8	4	6
8	6	2	5	4	1	3	9	7
4	7	9	8	3	6	5	1	2

AURREKOEN EMAITZA

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.35 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutegia: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egutegia: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egutegia: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 652-532589.
- Eibarko mutil batek pisua edo buhardila hartuko luke alokairuan (1/2 lagunentzako). Tel. 665-705978.
- Pisua alokagai Jardinetza kalean, Sakunen. 2 logela. 100 m2. Gasa eta beheko suarekin. Berriztua. Lursail txiki batekin. Kanpora begira, bista ederrekin eta eguzkitsua. Tel. 943-254948 eta 651-678454.
- Pisua alokagai Ermua erdialdean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 648-643715.

2. Motorra

2.1. Salgai

- Taxi-lizentzia salgai Elgoibarren. Bezeroen zerrenda eta autoarekin. Tel. 686-234718.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Untzaga plazan. Tel. 688-678934.
- Taberna traspasatzen da Eibar erdialdeko oinezkoendako kalean. Tel. 645-186309. Lorena.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 602-146153. Fatima.
- Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako: lorezain, artzain, zaindari, pintore, igeltero, garbitzaile, banatzaile... Tel. 631-066712. Ahmed.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia handia. Tel. 659-330026.
- Emakume euskalduna eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 606-502567.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-441190.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-587259.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-258708.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 628-765929.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 672-076852.
- Emakumea eskaintzen da sodiedadeak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta ostalaritzan lan egiteko. Tel. 645-194423.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: pisuak, soziedadeak, pegorak, tabernak... Esperientzia. Tel. 638-221948.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 681-055905.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-765929.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Tel. 638-421827.
- Eibarko neska eskaintzen da goizez etxetan garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 698-604531.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.
- Neska euskalduna eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Erreferentziak. Tel. 631-343232.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 657-103380.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-932184.
- Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 661-064027.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko asteburuetan. Tel. 602-123667.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-523390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-363056.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 642-636525.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 688-825514.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-392169. Blanca.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 695-708379.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 623-064664.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta orduka. Tel. 631-124942.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-740755.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 626-580592.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko... Tel. 632-204896.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko... Tel. 679-910991.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-846244.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka eta asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 687-362773.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 632-454417.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-705406.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-448980.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta beste edozein lanetarako. Tel. 631-089006.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka edo jornada erdiz. Tel. 632-700803.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldez umeak zaintzeko. Tel. 632-776986 eta 602-860428.

4.2. Langile bila

- Emakumea behar da interna beste emakume bat zaintzeko. Erreferentziez gainera, Alzheimerra daukaten gaixoak zaintzen esperientzia izan behar du. Tel. 639-529935.
- Sukaldean eta barran eskarmentua duen pertsona behar da Eibarko taberna batean. Tel. 650-409249. Txomin.
- Sukaldari-laguntzaile euskalduna behar da Eibarko taberna baterako. Tel. 606-110693.
- Sukaldariak eta kamareroa behar dira Eibarko jatetxe berri baterako. Bidali curriculum: eibarkafe@gmail.com
- Kamareroa eta sukaldaria behar dira. Bidali curriculum argazkiarekin: camareros12345@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Gitarra klase partikularrik ematen dira: gitarra elektrikoa, akustikoa, klasikoa eta baxua. Tel. 665-732640. Aitor.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- TVP ordenagailua salgai, diru-zorro kaxa eta impresorarekin. Proscar programa barne. Tel. 618-272930. Asier.
- Masajerako ohatila eta infragorri lanpara salgai. Prezio onean. Tel. 670-342388.
- Ohe artikulatua salgai. Ospitalekoa bezalako. Berri-berria eta prezio onean. Tel. 657-799511.
- Urpekaritzako jantzia salgai. Sporasub chicle Yamamoto 45, 5 mm, XL taila. 90 euro osorik eta 45 prakak bakarrik. Tel. 634-822504. Aratz.
- Peltz Nomic pioleta pare salgai. Berria. 330 euro. Tel. 634-822504. Aratz.

6.2. Eman

- Paseo-aulkia behar dut umearentzat. Tel. 631-363056.

6.3. Galdu/Aurkitu

- CD batzuk aurkitu ditut B. Sarasketa kalearen hasieran, edukiontzien parean. Tel. 688-801567.
- Txupetea-eusteko zilarrezko brotxea eta txupetea aurkitu ditut J. Etxeberria kale inguruan. Jone izena dauka. Tel. 943-702547.



Hyundai i30 berria.

Eramaizu Hyundaiko Cinking-ekin.

Prestatu zaitetz, orain Hyundain... Cinking lagako zaituen i30 berria kaleratzen dugu-eta:

- 5 urteko garantia km mugarik gabe
- 5 urteko asistentzia errepidean
- 5 urteko mantentze-lana
- eta orain Hyundai i30 eguneko 5€-gatik

5 € /eguneko (150€ hilean)	60 kuota	Zordun-tasa: 7,75%
	Sarrera: 4.048,40€	UTB: %9,46

Hyundai i30 5p 1.4 MPI (100CV) ESSENCE-rako eskaintza



OARSO CAR ELGOIBAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZKOARAKO
943 74 14 80
Olaso Polig., 17.



Hyundai i30 Gama Berria.
CO₂ Emisioak (gr/km): 104-169.
Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,0-7,3

Hyundai i30 5p 1.4 Mpi (100CV) ESSENCE-erentzat finantziazio adibidea. Prezioa eskura ordainduta 11.490,00€. Sarrera 4.048,40€. 60 hileko epea, 146,95€-ko kuota 1 eta 150,00€-ko 59 kuota. Zordun Tasa Finkoa %7,75, T.A.E. %9,46 (T.A.E.-ak eta lehen kuotak aldaketa txikia izan dezakete kontratua sinatzeko egunaren eta kuotak ordaintzeko egunaren arabera). Irekiera komisioa %3,00 223,25€. Kreditorearen Zenbateko Osoa 7.441,60€. Kreditorearen Kosta Osoa 1.778,60. Zorduntutako Zenbateko Osoa 9.220,20€. Prezio Osoa Epeka 13.268,60€. Kontratazio eguna 2015/04/15 eta lehen ordainketa 2015/05/05 izanik. 2015/04/30era arte balioko du eskaintza honek. Santander Consumer, E.F.C., S.A.-ren eskaintza, bere azterketa eta onarpenari lotutakoa. Penintsulan eta Balearetan bizi direnentzako eskaintza. Matrikulazioa, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta PIVE 6 Plan (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeari lotutakoa) barne. Zehaztapen eta baldintziak lotutako Cinking Programa. Ibilgailuaren finantziarioari lotutako mantentimendua. Begiritu Hyundai.es/cinking-en.



Kalean salgai

Apirilak 17, barixakua, Untzagan

kamisetak 12 euro

sudaderak 25 euro

bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan



...eta kitto! Euskara Elkartea komunikabideak@etakitto.eus Tel.: 943 20 09 18 www.etakitto.eus



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**